

# vecinos

## gipuzkoa

comarcas@noticiasdegipuzkoa.com

Uda iritsi da eta milaka gipuzkoar haur eta gaztek, Foru Aldundiak, Kutxak eta hainbat aisialdi taldek antolatu dituzten udalekuetan hartuko dute parte. Talde askok, ordea, urtean zehar lantzen duten heziketa proiektu baten baitan egiten dituzte. **TESTUA Aitor Jordana**

# Oporrak baino gehiago

**T**RINTXERPEKO biztanle ugari gogoan dituzte Bóveda taldearekin igarotako uneak. Hirurogeiko hamarkadan jaio zen Gipuzkoako aisialdi talderik zaharrena. Katekisi saioetan mendira atera ohi ziren gazteak eta irteera hauek luzatzeko asmotan Galdonara antolatu zuten lehendabiziko kanpamendua. Bost egunez luzatu zen eta bertan hama bi neskak hartu zuten parte. Urte bat beranduago, bi txanda egin zituzten Galdonara, bata mutilentzako eta bigarrena, nesKentzako. Kanpamendu honen arrakasta ikusita, Trintxerpeko gazteak biltzen hasi ziren, elizako kanpandorreen ondoan dagoen gangan. Taldea sortu eta gaztelaniaz izen hura jarri zioten. Egun taldeak lanean jarrai-tzen du, nahiz eta urte hauetan gauza ugari aldatu diren aisialdi taldeen inguruan.

Arrasateko Txatxilipurdi elkar-teak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar. Uztailaren 25era arte, udalekuetan egongo da murgilduta. Euskal Herriko hainbat lekutan ariko da lanean. Besteak beste, Urretxu, Zumarraga, Alegia, Gabiria eta Ezkio Itsasoko udaleku

irekiak kudeatuko ditu Txatxilipurdik. "Haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea dugu helburu", aipatu du Eneko Barberenak, Txatxilipurdiko kideak.

Hogei urte daramatza taldeak udalekuak antolatzen (hamalau urte elkarte gisa eta aurretik Arrasate Euskaldun Dezagun, AED, egitasmoaren baitan). Urtean zehar 40 bat begiralek egiten dute lan Txatxilipurdin. Udan, aldiz, ehun inguru dira. "Arrasaten 400 bat haur eta gazte hartuko dute parte udalekuetan eta begirale kopuru handia behar dugu", esan du Barberenak. Arrasateko haurrentzat Getarian (9 eta 12 urte bitartekoentzat) eta Orion (12 eta 14 bitartekoentzat) antolatu ditu udaleku irekiak. Gazteak (14 eta 16 urte bitartekoak) kostaldeko hainbat lekutan egongo dira, Bergarako Jardun elkartearekin batera antolatu duten egitasmoaren baitan.

"Gure proiektuarekin bat egiten duen jendeak egiten du lan gurekin, batzuk haurrekin lan egitea gustuko dutelako eta badira sos batzuk irabazteko ere egiten dutenak. Boluntarioak ere baditugu", dio Barberenak.

**Arrasateko Txatxilipurdi taldeak Gipuzkoako hainbat herritako udaleku irekiak kudeatuko ditu**

**Hirurogeiko hamarkadan jaio zen Bóveda, Gipuzkoako aisialdi talderik zaharrena**

Xirimiri elkartean debalde egiten dute lan begirale guztiek. "Monitoreekin batera, taldean urtetan egon diren gazteek egiten dute lan. Arduradunak ez diren arren, esperientzia hartzeko aukera ematen zaie", esan du Borja Ruizek, Xirimiri taldeko kideak. Haren ustetan, *titulitis* ugari dago gaur egun. "Gure kasuan, agiria atera aurretik, 17 eta 18 urteko gazteak laguntzaile gisa aritzen dira txikienekin eta ondoren begirale taldean sartzeko titulua ateratzeko proposamena egiten zaie".

Nahiz eta urte osoan egiten duen lan, udalekuak ekitaldi garrantzi-tsuenak dira, Ruizen ustetan. "Haurrei ilusio gehien egiten die-na, behintzat, bai". Xirimirik antolatu-tzen dituen udalekuek, "urtean zehar egiten dugun heziketa proiektua osatzen dute", esan du. Muzkin (Nafarroa) egiten dituzte udalekuak hiru txandatan. "Hirugarrenekoak 15 eta 18 urte bitartekoak dira. Kasu honetan, programazioa lotuta eraman arren, beraien proposamenak izaten ditugu kontuan. Gainera, ardurak hartzeko gai dira. Bazkaria, guztion artean egiten dugu", esan du

Ruizek. Aurten, gazteek Muzkiko etxean konponketak egingo dituzte. "Duela 40 urte erosi zuen San Vicente elizak Muzkiko etxea", aipatu du.

Badira, ordea, urtean zehar lan egin eta udalekuak antolatzen ez dituzten aisialdi taldeak. Mikel Arreseigor 18 urterekin hasi zen begirale lanetan Tolosako Ttente-k taldean. "Beti gustatu izan zait. Haurra nintzenez taldean egon nintzen". Ttente taldean lanean aritzen diren guztiek ez daukate begirale agiria. "16 urterekin has-ten dira gazteenak. Guk bi urteko prestakuntza ematen diegu eta 18 urterekin begirale kurtsiloa egin dezaten proposatzen diegu taldean jarraitzeko".

Tolosa da biztanleko aisialdi talde gehien dituen Gipuzkoako herria. "Inauterietako kalejira ikusi besterik ez dago. Bost talde ateratzen gara eta guztion artean mila ume biltzen ditugu. Aisialdi taldeetan parte hartzeko ohitura dago herrian". Inauteriak dira Ttente taldeari lan gehien suposatzen dion ekitaldia. "Azarotik otsailera arte lanean aritzen gara".



Xirimiri taldeko kideak iaz Muzkin antolatutako udalekuan.